



MUSIKA

Gorde ondo arrautzak!



LUKIEK #2

LUKIEK

AUTOEKOIZPENA, 2021

IKER BARANDIARAN

Mungiako talde gazte hau hiru azeri zaharrez osatuta dago: Anton Goikoetxea (baxua), Christian Rodriguez (bateria) eta Josu Ximun (ahotsa eta gitarra). Oharkabea sor-tu zen hirukoa, pandemia aurretik, eta 90eko hamarkadako soinuak erreibindikatuz kontzertuak egiten hasi eta lan bat argitara eman zuten. Beste talde batzue-tan ere badabilta kideak eta horietako batek –Belako– agenda estua izaten du. Bada, pandemia garaian buru-belarri jarri dira lan hau prestatzen.

Lukiek #2 lan borobila da; freskoa, bat-batekoa, baina aldi berean helduleku asko dituen. Lukieki buruz esaten da “euskaraz abestutako rock alternati-boan” dabiltzala. Eta hala da: mila urte

pasa badira ere, bazen ordua –salbuespen oso gutxirekin– bizkaiera kantetan plazaratzeko, eta gero eta estilo zabalagoetan, gainera. Eta lan honek badu hori, bizkaiera peto-petoa (edo ez) eta musika estilo paleta oso anitza.

SnK kantak hard-rockaren eta 70eko hamarkadako rockaren ertzean jaio eta gerora pop-rockaren eta post-rockaren arteko orekan egiten du aurrera. *Fluoreszenteak*-ek sinplea dirudi, baina Pixies-en zigilua duten melodia barnera-koi eta dantzagarriak ditu. *Eroan zaittue* Magazine-ren pareko gitarra gardenek gidatzen dute eta Alemaniako kutsua ere badu, ederra! *Izate iragankorrek* koka-tu daiteke grunge-aren zikintasun eta gordintasunean (TAD gogoan), nahiz eta

gero leundu eta oso popero bilakatu. *Klo-noa*-n laminek abestuko digute; kontuz! *Sorginorratz* pausatuagoa da, misterio-tsuagoa eta psikodelikoa, ia-ia epikoa. *Soro baten zoro bat*-ek izenari justizia egiten dio, indarra, esperimentazioa, Primus eta erritmo sasi-industrialak batuz. Horren ostean, hiru sasi-ipuin ekarri di-tuzte: *Gaztelua* pieza akustikoa; *Sorgina* pieza instrumental kiribildu eta pisu-tsua; eta *Geziak* martzial eta epikoa. Eta bukatu aurretik, etxafuegoak: *Obabatxue* kanta erraldoia da: Al-Andaluseko ahaz-tutako talde progresibo handi haien pa-rean lo-kanta misterioitsu bat kiribiltzen duen kantutzarra. Noisea eta rock pisu-tsua melodiarekin batzen dituen *Tzar* abestiak ematen dio akabera diskoari. ●